



Gudarien etorbidea 2, ORDIZIA
943 881 128 • Urte osoan irekita
tximistasagardotegia@gmail.com
www.tximistasagardotegia.com



Maiatzaren hasiera arte irekital!

R. ZABALA

200 urte baina gehiago sagardogintzan.
%100 Bertako sagarrarekin egindako sagardoa.



Bazkariak: ostirala, larunbata eta igandetan.
Afariak: astelehenetik larunbatera.
Enkarguz: bakailua parrilan, saltxan eta menu beganoa ere badugu.

Garagartza baserria z/g. • 20150 Aduna • Gipuzkoa
943 690 774 • www.rzabala.com • info@rzabala.com





DORRONSORO
ORRONGEGIA

Sagardotegietan ere zuekin: kalitatea eta zerbitzua



Akarregi industrialdea, 14 • HERNANI • 943 333 618



OTSUA-ENEA

Osñaga Auzoa
943 556 894
HERNANI
Gipuzkoa

Egi Luze
Barrio de Zamalabide Errentaria
(+34) 943 523 905
www.egiluze.es

HEMEN GAUDE ZUEN ZAIN TXOTX GARAIA HASTEKO





Sagardotegi menu
30-35€

• Sidreria familiar, cocina tradicional y de calidad
• Productos de temporada • Asador y panilla • Bodega
Ibita igande gauean, astelehen egun osoan eta astearte gauean.

ZABALIK DAGO TXOTX DENBORALDIA

27. edizioa Alorrenea sagardotegian ospatu da aurten Sagardo Berriaren Eguna eta Izaro abeslaria izan da lehen sagardoa dastatzeko ardura izan duena

Oihana Prado

Urtero bezala, Astigarragan ospatu da txotx denboraldia- ren irekiera ofiziala. Sagardo Berriaren Egunaren 27. edizioa joan den asteazkenean egin zen Alorrenea sagardotegian, Izaro abeslaria protagonista izan zuela. Ekitaldian, sagardogile eta sagar- dozaleez gainera, Xabier Urdangarin, Astigarragako alkate eta Sagardun Partzuergoko lehendakaria izan zen, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariekin batera.

Ospakizunak azkeneko urteota- ko egitura bera mantendu zuen. Lehenik, eguneko protagonistak, Izaro abeslariak, sagarrondo bat landatu zuen Sagardoetxeko sagas- tian. Ondoren, Alorrenea sagardo- tegiko kanpoaldean, txalaparta hotsak lehen kupela zabaltzeko unea iristear zegoela iragarri zuen. Izan ere, antzina, sagarra prentsa- tu ondoren txalaparta doinuekin langileei dei egiten zieten sagarra- ren muztioa probatzera hurbildu zitezen.

Dantzariak sagar dantza eskaini zioten Izaro urduri bati eta gero soka-dantzan parte hartzera gon- bidatu zuten. Sagardogileen esku- tik, kupeletaraino lagundu zuten Mallabiako kantaria, edalontzia eskuan eta irribarrean ahoan.

Lehen kupelaren parean, hura irekitzeko irrikan ageri ziren Xabier eta Jokin Mariezkurrena aita- semeak, sagardotegiko jabeak. Sagardo edalontzia beteta, “Hau da sagardo berria!” hitzak ozen esan zituen Izarok, aurtengo txotx den- boraldia inauguratuz.

Edalontzia bete ondoren, “Hau da sagardo berria!” hitzak ozen esan zituen Izarok

Berñat Gaztelumendi eta Agin Laburu bertsolariak sagardoaren kulturaren inguruko bertsoak eskaini zituzten giroa alaituz eta eguna behar bezala borobiltzeko sagardotegiko ohiko menua dasta- tzeko aukera izan zuten ekitaldian parte hartu zutenek.



Izaro Andresdenboraldiko lehen kupeleko sagardoarekin edalontzia

Protagonistak

Sagardoaren Lurraldeak antolatzen du Sagardo Berriaren Eguna eta urte- ro pertsona ezagun bati ematen dio lehen kupeleko sagardoa dastatzeko ardura. Olatz Arrieta kazetaria, Aritz Aranburu surflaria, Karlos Arguiña- no sukaldaria, Jose Luis Korta arraunlaria, Joane Somarriba txirrin- dularia edo Andoni Egaña bertsola- ria izan dira, besteak beste, aurreko edizioetako protagonistak. Aurtengo ekitaldia *streaming* bidez jarraitzeko aukera egon zen Sagardoaren Lurral- dearen YouTubeko kanalean. ■

Izaro / ABESLARIA

“Ez dut alkoholik edaten, eta ez naiz jai giro zalea, bizitzaren paradoxa bat da”

Oihana Prado

Egun gutxi barru Izaroren azke- neko lanak (*Limones en invierno*) argia ikusiko duenean, datorren urtarillaren 31n hain zuzen, sagardoaz eta bizitzaz labur baina bizi hitz egin dugu abeslaria- rekin.

►Txotx irekieraren protagonista izateko gonbidapena jaso zenuenean, zer etorri zitzazun burura?

►Lehenengo etorri zitzaidana, sor- presa. Gero, esker ona. Ez du edo- nork jasotzen gonbidapen hori, eta ilusioa egin zidan norbait ilusioa egiteak ni izatea pertsona hori. Ain- tzat hartua eta maitatua sentitzen naiz.

►Izatez bizkaitarra, baina duela zen- bait urte Donostian bizi zara. Sagardotegi giroa gustoko duzu? Joateko ohitura duzu?

►Egia esan nahiko broma eta barre eragin ditu albiste honek nire ingu- ruan. Ez dut alkoholik edaten, eta ez naiz jai giro zalea, bizitzaren para- doxa bat da hau inguruko guztien- tzat (barreak). Nire kuadrillakoak oso zaleak dira, eta beraientzat irekiko dut denboraldia, goza dezaten gogo- tik. Nire partetik sentitzen dudana da sagardoa sagardotegia baino haratago doan zerbitu dela. Lan asko dago horren atzean, pazientzia asko, norbere lurretik ateratako zer baiten zukua, eta lan horren emaitza nik estreinatzea da niri ilusioa egiten didana.

►Sagarrak baino, limoiak eskaini dizkiguzu zure disko berrian. Kale- ra aterako da egun batzuk barru, urduri jartzen zaitu zein harrera izango duen? Nolakoa da diskoa?

►Super gogotsu nago! Pixka bat kupela zabaltzea bezala izango da. Denbora askoko lan bat da, estre- iatzeko prest! Denbora asko dara- mat momentu honen zain, eta espe- ro limoiekin egindako nire zuku pro- pia askoren gozagarri izatea. Eta nolakoa den diskoa bera galdetu didazu, naiago zuek deskubritzen baduzue.



►Bira berrian Hegoamerikara ere joango zarete. Euskadi ez den beste toki batean bizitzen ikusten duzu zure burua?

►Momentuz martxo hasieran Mexikora goaz, hirugarren aldiz. Oso gustora joaten gara, izugarri ondo pasatzen dugu, beste pers- pektiba bat ematen digu, mangoa eta aguakatea jaten dugu nahi bes- te eta beste erritmo batzuk ezagu- tzeko aukera ematen digu. Eragin handia izaten dute bidaia horiek nire musikan, nire erroekin konektatzen nau Latinoamerikak. Beranduago beste herrialde batzuetara ere joan- go gara, aurrerago kontatuko dizuet. Bizi izan nintzen denboraldi batez

Euskaditik kanpo eta biziko nintza- teke berriro. Baina egia da beti iza- ten dudala hau ardatz, familia ger- tu izatea funtsezkoa da niretzat.

►Agur Eason, zortzi minutu Izaro- rekin' doku-bideoan alokairuzko etxe txiki batean bizi den neska nor- mal bat zarela kontatzen duzu. Zer da ospea edo arrakasta Izaroren- tzat?

►Bideoan azaltzen dudan bezala ospea ikusgarritasuna da batez ere. Jendeak nor zaren eta zer egiten duzun jakitea, zure berri izatea eta presentzia izatea beraien egunero-

kotasunean. Dokumental txiki hori ez zegoen planeatuta eta bat-batean hori egiten bukatu genuen. Suposa- tzen dut banuela kontatzeko beha- rra. Arrakastarekin harremantzen hastera zaila da, konplexua. Jende asko dago hor tartean, ikus-entzu- leak, hiritarrak, talde fenomeno bat da, ez da pertsonala, horregatik uste dut behar nuela talde terapia publi- koa egitea.

►Zer eskatzen diozu bizitzari?

►Bizitzari eskatzen diot ez diezada- la kendu daukadanik urte luzez. Mantendu dezala indartsu nire osa- suna eta maite ditudanena, eman diezagula denbora asko bizitzaz elkarrekin gozatzeko. Ez dadila bizkorregi pasatu. Gaur nagoen bezala ikusten naiz etorkizun hur- bil eta ez hain hurbilean, gustatzen zait non nagoen. ■

“Disko berriak argia ikustea kupela zabaltzea bezala izango da, denbora askoko lana da”

betetzen. R. PLAZA



Sidreria Sagardotegia
Oiharte
www.oiharte.com
Irugarate-gain auzoa
ZERAIN (Gipuzkoa)
Tlf: 686 299 158 • 943 501 013



Abierto desde mediados de Enero hasta Octubre
Urtarril erditik aurrera irekita Urrira arte



Petrilegi
petrilegi.eus

Asteleheneretik ostegunera soilik goza dezakezu gure bakailaoa saltzan eta legatz frejituaz, biak enkarguz.

Shhhh... gure sekretua da...